

# Osoko bilkura

Bilbon, egoitzan eta Euskal Museoan, 2017ko otsailaren 24an.  
Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Azkarate, Miren,  
Goenaga, Patxi,  
Lakarra, Joseba,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Salaberri, Patxi,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun eta  
Zabaleta, Joseba,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorria adierazi dutenak:** Aurelia Arkotxa, Andres Iñigo, Jose Irazu “B. Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Joan Mari Torrealdai eta Mikel Zalbide.

**Ahalak:** Aurelia Arkotxak ahala Xarles Videgaini; Andres Iñigok ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdai ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2017ko otsailaren 24an, ostiralean, 09:30ean hasi da Bilbon, egoitzan. 10:00etan, *Oinarriko Hiztegi Juridiko-parlamentarioa* aurkezteko, bilkura eten da. Ondoren, bilkurari segida eman zaio 11:15ean, Bilboko Euskal Museoan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Segidan, euskaltzainburuak Marijane Minaberri ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri eman du. Familiari eta hurbilekoei doluminak adieraztea erabaki da Osoko bilkuran.

Ondoren, eguneko aztergaiak jorratu dira.

### **1. Osoko bilkurako (2017-01-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz**

Idazkaritzara M. L. Oñederrak eta A. Urrutiak eginiko oharrak iritsi dira. M. Azkaratek adierazi du M. L. Oñederrak eginiko testu proposamenarekin bat dato-rrela. Oharrak 8.3. puntuko bigarren paragrafoari gehitzeko proposatu dira. Azke-anean, bigarren paragrafoari ondoko testua gehitzea adostu da: <<Hartu ere, Ipar Euskal Herriko Euskaltzaindia Elkartearen izenean egin da hartze hori. Elkarteak nortasun juridiko berezia du, eta kontratazioa, lan kontratuak eta abar Frantziako legeriaren arabera egiten dira.

Orobat, elkarte horrek bere Zuzendaritza eta Osoko bilkura propioak ditu eta Ipar Euskal Herriko herri-erakundeek diru laguntzak elkarte horretara bideratzen dituzte. Hainbatez, Ipar Euskal Herriko Euskaltzaindia Elkarteak autonomia osoa du kontratazioak egiteko. M. Azkaratek galdetu du ea deialdi publikorik egin den. Erantzun zaio ezetz, sarritan arazoak izaten direlako Ipar Euskal Herrian profil jakin bateko hautagaiak aurkitzeko>>.

S. Alemanek 9.1 puntuko bigarren paragrafoan <<... jaiegun esanguratsuak baitira>> esaldia <<... jaiegun esanguratsua baita>> esaldiaren ordeztzea proposatu du. Zuzenketa onartu da Osoko bilkuran.

Horiek horrela, 2017ko otsailaren 24ko bilera-agiria onartu da, eginiko gehi-kuntzak eta zuzenketa sartu ondoren.

P. Zabaletak aditzera eman du bilera-agiriko 2. puntuan jasotakoari buruz, ezer gehitzeko edo aldatzeko arrazoirik ez duela ikusten, bere iritziz ondo jaso baita bilkura horretan erabakitakoa. Nolanahi ere, erabakitakoaren gainean, kezka ager-tu eta Exonomastika batzordeari galdetu dakion iradoki du.

### **2. 150. araua aldatzeko Onomastika batzordeak egindako proposamena. Ekarp-enak aurkeztu eta erabakiak hartu**

2016ko azaroaren 25ean eginiko Osoko bilkuran P. Salaberri Onomastika batzordeko buruak azaldu zuen Arabako Foru Aldundiak Arabako herrien izenei buruzko txostena eskatu ziola Euskaltzaindiari. Onomastika batzordeak hiletan jardun du eskaturiko lan hori egiten. Inguruabar horretan, Euskaltzaindiak emani-ko "Arabako herri izendegia" izeneko 150. arauan jasotako zenbait herri izen, hala

nola Argantzun, Bilar, Iruraitz-Gauna, Trebiñu -Eskualdea izendatzeko Uda izena ere erabil daiteke- eta Zanbrana ez dira zuzenak, harrezkero egin diren ikerketa eta bildutako informazio zein testigantzen arabera. Aurreko izen horien orde bestea hauek proposatu dira: Argantzun, Elvillar, Iruraiz-Gauna, Trebiñu -Uda okerreko interpretazioa da; izena Ibita baitzen- eta Zambrana -erdal toponimoa da-. Horregatik, 5 herri izen horiek aldatzeko proposamena aurkeztu zuen Onomastika batzordeak. Aldaketarako arrazoiak eta dokumentazioa ere jasotzen zituen txostenak.

Aurkeztutako txostenari oharrak egiteko epea 2017ko urtarrilaren 9an, astelehenean, amaitu zen.

Oharrik egin ez denez, Onomastika batzordeak eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

### **3. XX. Barne Jardunaldiak, argibideak**

E. Osa idazkariordeak XX. Barne Jardunaldien behin-behineko egitura aurkeztu du. Aurkeztutakoak moldaketak izan ditzake, txostenen hurrenkerari eta ordutegiei dagokienez. Izan ere, begiz jotako txostenak jasotzen ez badira, aztergaien zerrendatik kenduko dira. Ondorioz, txostenak aurkezteko finkaturiko epea igaro ostean, behin betiko aztergaien zerrenda eta ordutegiak eskuratuko zaizkie euskaltzainei.

Barne erregeletan aldaketak, eguneratzeak zein besteetarako proposamenak egin nahi dituen euskaltzainak martxoaren 13ra arte egiteko aukera izatea erabaki da Osoko bilkuran. Ondoren, aurkezturiko aldaketa guztiak azalduko dira martxoaren 31n, XX. Barne Jardunaldietan. Aldez aurretik euskaltzainek aurkezturiko proposamen horiei zein Zuzendaritzak XX. Barne Jardunaldietan aurkeztutakoei oharrak egiteko, aldi berri bat irekiko da XX. Barne Jardunaldietan.

Era berean, XX. Barne Jardunaldiak bi egunez egingo direnez gero, aditzera eman da, hala eskatzen duten euskaltzainek logela izan dezaten, eskaria martxoaren 17rako egin beharko dutela.

### **4. Oinarrizko Hiztegi Juridiko-parlamentarioa aurkezteko ekitaldia**

10:00etan Oinarrizko Hiztegi Juridiko-parlamentarioa aurkezteko ekitaldia egin da egoitzaren Areto Nagusian. Ekitaldian hitza hartu dute Eusko Legebiltzarreko

lehendakariak, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak, A. Urrutia euskaltzainburuak eta Gotzon Lobera Oinarrizko Hiztegi Juridiko-parlamentarioa ontzen jardun duen lantaldearen koordinatzaileak. Ekitaldian, lantaldeko kideak, ganbera legegiletako alderdietako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako kideak ere egon dira.

### **5. Atzerriko pertsona-izenen grafia egokitzea: noiz bai eta noiz ez**

X. Kintana Exonomastika batzordearen buruak gogorarazi du X. Videgainek “Atzerriko pertsona-izenen grafia” araugaiari ohar batzuk egin zizkiola. Urtarrilaren 26ko Osoko bilkuran atzerriko pertsona-izenen araugaiari egindako oharrak ebatzi ziren, bat izan ezik: euskaraz Baiazeto grafia ere onartzea eskatu zuen X. Videgainek, araugaian Bajezid I.a bakarrik agertzen zen eta.

Batzordearen proposamena eskaera onartzea izan zen. Hori aurkeztu zenean, ordea, X. Kintanak esan zuen Baiazeto baino hobe izango zela Bajazeto jartzea, koherentzia mantentzeko. Ondorioz, ebatzi gabe gelditu zen puntu hori, Exonomastika batzordeak iritzia eman zezan. Beraz, gaurko bilkurara datuak eta Exonomastika batzordearen proposamena ekarri dira.

Horren arabera, badirudi egokiago litzatekeela Bajezid formarekin batera agertzeko aldaera Bajazet izatea, eta ez Baiazeto. Alegia, euskaraz honela jartzea proposatzen du Exonomastika batzordeak: Bajezid I.a / Bajazet I.a.

M. L. Oñederrak <j> horren ahoskerari buruzko argibidea emanek, arauan ohar bat gehitzea iradoki du.

P. Salaberrik bi proposamen egitea egokiena den eta erabiltzaileentzat nahasgarria suertatuko ez ote den esan du. Bere ustez, batzordeak proposamen bakarra egin beharko luke, ziurtasunik ez dagoenean gerorako utziz horri buruzko erabakia hartzea.

Azkenean, gaia batzordera berriz eramatea eta hurrengo bilkurarako uztea erabaki da Osoko bilkuran.

### **6. “Europako errege-erreginen izenak”. Irizpideak eztabaidatzea eta erabakitzea**

X. Kintanak aditzera eman duenez, puntu honek aurrekoarekin dauka zerikusia. Izan ere, gaur aurkeztu den “Atzerriko pertsona-izenen grafia egokitzea. Noiz bai

eta noiz ez. Irizpideak” izeneko txostena iazko urriko Osoko bilkuran aurkeztu zena da, funtsean, baina gaur egungo erabilerari buruzko datu gehiago erantsita, corpusetakoak batez ere, gaur egungo erabilera erreala zertan den ikusteko.

Erabaki beharrekoak txosten honen 12. orrialdetik aurrera, ondorioen atalean, jaso dira; oinarrian, honakoa erabaki behar da: oraingo errege-erreginei ere grafia aldatuko zaie, bai ala ez?

"Bai" erabakiz gero, hor amaitzen da kontua. "Ez" erabakiz gero, ordea, zehaztu egin behar da. Bi aukera aurreikusten ditu batzordeak. Batetik, gaur egun erregetzan daudenei jada ez aplikatzea grafia-egokitzapena (beraz, Joan Karlos I.a baina Elizabeth II.a, Felipe VI.a...). Bestetik, mende-aldaketa (XX. m. / XXI. m.) ezartzea mugatzat grafia-egokitzapenaren irizpideari amaia emateko. Hau da, XXI. mendean erregetzan direnei edo izan direnei grafia-egokitzapena ez aplikatzea (beraz, Juan Carlos I.a, Elizabeth II.a, Felipe VI.a...).

Gaia kokatu ostean, iritzi-trukea gertatu da. Gaztelania eta frantses hizkuntzen tradizioa eta euskarazko hiztun-elkartean duten eragina kontuan hartuz, hiztun-elkartearen batasunari eutsi guran, bide propioa egitea onuragarria izan daitekeela aipatu da, beste hiztun-elkarte batzuek egin duten bidea euskaraz ere eginez. Nolanahi ere, jarraitu beharreko irizpideak ez dira garbi ikusi, batzordeak aukera desberdinak ematen baititu. Ondorioz, datuak aztertzeko, interpretatzeko eta proposamen bakar bat egiteko eskatu zaio Exonomastika batzordeari. Era berean, gai honi araua baino gomendio izaera ematea proposatu da, ondoren, erabiltzaileek (idazleek, hedabideek, argitaletxeek eta abar) zein bide lehenesten duten jarraitu ahal izateko.

## **7. Euskaltzaindiaren 2016ko behin-behineko balantze ekonomikoa eta 2017. urteko aurrekontuei buruzko informazioa**

S. Aleman diruzainak aditzera eman du Zuzendaritzak 2016ko behin-behineko aurrekontu likidatua onartu eta Osoko bilkurari horren berri ematea erabaki duela. J. Zabaleta kudeatzaileak 2016. urteko aurrekontua, eginiko gastuak eta sarrerak jasotzen dituen behin-behineko aurrekontu likidatua aurkeztu du. Gauzak horrela, aurrekontu-ekitaldia defizit txiki batekin (-1.255,57 euro, hots, kudeatutako aurrekontuaren % 0,05) ixtea aurreikusi da (behin betiko emaitza, urteko Kontu Ikuskaritzak eginiko txostenaren arabera zehaztuko da). Ondorioz, Euskaltzaindiaren urteko balantzea orekatua izan da, azken urteetakoa izan den bezala.

Segidan, 2017ko aurrekontuei buruzko zenbait argibide eman dira. Jakinarazi denez, herri-erakunde batzuek (bereziki Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoak) 2017. urteko aurrekontuak onartu gabe dituzte. Nolanahi ere, jada egin dituzten aurreikuspenak jaso direnez, jakinarazi da 2017ko aurrekontua 2016ko aurrekontuaren antzekoa izango dela, eta 2016ko egitasmoei, zerbitzuei, batzordeei eta lantaldeei, hots, iazko lan-jardunari bere horretan eutsi ahal izango zaiola.

## 8. Esku artekoak

**8.1. EiTBko Administrazio Kontseilurako ordezkari bat proposatzeko idatzia.** Araubideak jasotzen duena aipatuz, EiTBren Administrazio Kontseilua berritzea dela eta, Eusko Legebiltzarrari hautagai bat aurkezteko idatzia jaso da Euskaltzaindian. Horiak horrela, Zuzendaritzak A. Arejita euskaltzain osoa proposatzea erabaki du, 2017ko otsailaren 8an harturiko erabakiaren arabera.

**8.2. 2017. urteko Euskadi Literatura Sariak.** Euskaltzaindian jaso da euskarazko literatura itzulpena modalitaterako Euskararen Akademiak epaimahaikide bat proposatzeko eskaria. Idatzitari erantzunez, Zuzendaritzak Gotzon Lobera Revilla jauna proposatzea erabaki du, 2017ko otsailaren 8an erabakitakoaren arabera.

**8.3. Gaur banatuko diren liburuak.** Honakoak banatuko direla jakinarazi da:

Jorge Luis Tejedorrek paraturiko *Sestaoko toponimia / Toponimia de Sestao* (Izenak bildumako 6. zenbakia).

Jon Kortazarrek eta Paulo Kortazarrek paraturiko *Mailu batekin: biola batekin*. Gabriel Aresti, 1962.

## 8.4. Hurrengo bilkurak:

Martxoaren 25ean, larunbatean, Ürrüstoi-Larrabileko Herriko Etxean, 10:30ean, Jean-Louis Davanti Manuel Lekuona Saria emateko ekitaldia egingo da.

Martxoaren 30ean eta 31n, XX. Barne Jardunaldiak egingo dira Bilbon, egoitzan.

## 9. Azken ordukoak

**9.1. Bizkaiko Batzar Nagusien aktak.** Urtarrilaren amaieran egin zen publiko Bizkaiko Batzar Nagusietako lan saioak, argitalpenak eta bestelako dokumentuak transkribatzeko zerbitzuaren lizitazio-iragarkia. Testuen itzulpena bizkaieraz egin dadila agintzen du baldintza teknikoen agiriak. Gai hau dela eta, kezka agertu du M. Azkaratek.

A. Arejitak, P. Uribarrenek eta A. Urrutiak gai hau ez dela berria eta duela zenbait hamarkadatik hala egiten dela azpimarratu dute.

**9.2. Radio Bilbaoren Bikaintasunaren Saria.** Euskararen alde eginiko lana azpimarratzeko, Bikaintasunaren sarietako bat jasoko du Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainak, martxoaren 6an, arratsaldeko 19:00etan, Guggenheim Museoan.

Eta beste aztergaiarik ez dela, 14:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,  
Andres Urrutia

Idazkaria,  
Xabier Kintana